



IV. «RIKARDO ARREGI» KAZETARITZA SARIA



RIKARDO ARREGI



Andoaingo Udala



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA TURISMO SAILA

dugu», esan du emakume Batetik bestera joan nahi denean
n zait
uden
noib
erob
iab
ema
Zurezko tx
n eta plisti

piden
ena ez
malia
aundi
k eta
la edo
etik
bada
alia f
nea pr
k ez
lektur
ktur
autori

idea etortzen zaigu eta
osto bategatik (11,6
peso ematen dizkigute

saltzen dute yuca de-
eta, horra, hogeitabost
la eta bostehun peso
dolar hortxe-hortxe.
n ez dago inora joate-
erosi nahi eta. Beraz,
bada, diru egiten
a saldu behar, koka

kualde horretan seku-
ra. Bogotatik seirehun
dago, nazioko komu-
tetatik urruti. Laure-
luzeko oihanean ez
orrik, errepiderik eta
netik barrena ez dago
a zotz, animalia basa,
zuihaitz haundi. Bizi-
arraultzeak eta esnea
ek ere, nola edo hala,
Ekuadoretik ekarri
inguruan bada tximu,
eko animalia franko,
ak eta esnea produzi-
erik ez.

eta esnerik ez baldin
olinarik, elektratresna-
mo-produkturik ere.
enik edo autorik. To-

Batetik bestera joan
beti errekatik barrena.
lupa muttur luxeak eg-
plasta ur gainean boga
herri koxkorra neska
rako eta umeak eskola
beti erreka-erreka. Ho-
zitzeak ez du ezertara
tsumitzaileak urruti
«Errepide edo kamio
lute beste konturik iz-
esan du beste emaku-
ere hemen produzitza
produzi dezakeguna
saltzeko batere auker

Hernán Rios, Pue-
alkateak garbi azald-
tzen dena: guztiok
bizi diren horiek ko-
tela, baina zer egin
tza osoan besterik e-
tute ikasi? Beste
bafute, gainera, ezi-
garraibiderik ez du
merkaturik ez du
egin behar etxe i-
alkateak.

Azkenaldi hon-
senperrenak egite-
teroz eta bestez
guztiak, batez ere
datzeko. Dagoen
hogeitahemezortz-
gin dira eta ber-
borategi birrindu-
segin eta han ar-
Nonbaitetik bizi-
norberaren bizi-
mendu mende-
resgarria» zupa

ANDOINGO UDALAK ANTOLATUTAKO IV. «RIKARDO ARREGI» KAZETARITZA SARIAREN OINARRIAK

Andoingo Udalak, euskararen erabileraren normalkuntzarekiko duen konpromezuak bultzaturik eta kontutan izanik, kazetaritza gizarte-bizitzan eragin itzela duen iharduera izaki, euskararen erabateko normalkuntzak ezinbestez behar duela euskaraz egindako kazetaritza prestu eta modernoa, IV. «Rikardo Arregi» kazetaritza sariaren deialdia egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

LEHENA

1991ko maiatzaren 15etik 1992ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan, prentsa idatzian orohar, euskaraz argitaratutako lanek daukate sari honetan partehartzeko aukera.

BIGARRENA

Lau atalotan banatzen da saria: sekzioa, baloraziozko kazetaritza, erreportaiak eta herrietako aldizkariak. Horrela, bada, sekziorik hoberena, baloraziozko artikulurik hoberena, erreportairik hoberena eta herrietako aldizkarietan argitaratutako artikulurik hoberena sarituko dira.

HIRUGARRENA

«Sekzioa» ataleko saria, lehen oinarrian aipatu epean Epaimahaiaren eritziz mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioari emango zaio. Lehen oinarrian aipatutako urtebeteko epean gutxienez 12 agerraldiko maiztasunez argitaratutako sekzioak izango dira Epaimahaiak aintzat hartuko dituenak.

LAUGARRENA

«Baloraziozko kazetaritza» ataleko saria, lehen oinarrian aipatutako epean prentsan argitaratutako baloraziozko artikuluetatik Epaimahaiaren eritzian hoberena denari emango zaio. Baloraziozko artikulua deitzen direnetan sartzen dira, besteak beste, saiakerazko artikulua. Fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako idazlanak izan. Sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak oso kontuan hartuko ditu egileak aztergaiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakotasuna eta zorrotzasuna.

«Baloraziozko kazetaritza» atalean gutxienez ere hiru folioko neurria duten artikulua izango dira Epaimahaiak aintzat hartuko dituenak.

BOSTGARRENA

«Erreportaia» ataleko saria, lehen oinarrian aipatutako epean prentsan argitaratutako erreportaietan Epaimahaiaren eritzian hoberena denari emango zaio. Sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontutan.

«Erreportaia» atalean gutxienez ere hiru folioko neurria duten artikulua izango dira Epaimahaiak aintzat hartuko dituenak.

SEIGARRENA

«Herrietako aldizkariak» ataleko saria, lehen oinarrian aipatutako epean herrietako aldizkarietan argitaratutako artikuluetatik Epaimahaiaren eritzian hoberena denari emango zaio. Ez dute atal horretan partehartzerik izango literatura alorreko artikuluek, ez elkarriketek, ez eta epe berorretan Argia, Deia, Egin, Euskaldunon Egunkaria, El Correo Español, Diario de

Navarra, El Diario Vasco, El Mundo del País Vasco, Jakin, Aizua, Navarra Hoy, Karmel, Herria, HABE, Senez, Zutabe edo Bertsolari aldizkarietan idazlanen bat argitaratu eman duten idazleen artikuluek ere, atal horretako saria kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendua bait da.

ZAZPIGARRENA

«Sekzioa» atalean egunkari eta aldizkariak ez dute aldeztu aurretik ezer aurkeztu beharrik izango, Epaimahaiak bera izango bait da jarraipena egingo duena.

«Baloraziozko kazetaritza» eta «Erreportaia» atalean kazetariak ez dute aldeztu aurretik ezer aurkeztu beharrik izango, Epaimahaiak bera izango bait da atal horietan ere jarraipen eta hautaketa lanak egingo dituenak.

ZORTZIGARRENA

«Herrietako aldizkariak» sarira edozein luzeratuko artikulua aurkeztu ahal izango dira. Autore bakoitzak artikulua bost kopia bidali beharko ditu 1992ko maiatzaren 25a baino lehen ondoren aipatzen den helbidera, kartazalean, helbideaz gain, «IV. Rikardo Arregi Saria - Herrietako Aldizkariak» ere jarri behar duelarik.

«Herrietako aldizkariak» atalean autore bakoitzak nahi beste artikuluz partehartu ahal izango du, IV. edizioako denboraldi horretan beste sariren batetara aurkeztutako lanak izan ezik.

Helbidea: Andoingo Udaletxea. Goikoplaza z/g.
20.140 ANDOAIN. GIPUZKOA

BEDERATZIGARRENA

Ondoko hauek izango dira Epaimahaiak osatuko dutenak:

Presidentea: Andoingo Udaleko Alkatea edo honek bere ordezkari izenda dezan udalkidea.

Bokalak: Elixabete Garmendia anderea, Jesus Etxezarraga jauna, Joserra Garzia jauna eta Jose Mari Otermin jauna.

Idazkaria: Andoingo Udalak izenda dezana, hizpidez baina hautespiderik gabe ihardungo duena.

HAMARGARRENA:

Sariak honako hauek izango dira:

- «Sekzioa» atala, sekziorik hoberenari emango zaiona: 400.000 pta.
 - «Baloraziozko kazetaritza» atala, prentsan argitaratutako baloraziozko artikulurik hoberenari emango zaiona: 400.000 pta.
 - «Erreportaia» atala, prentsan argitaratutako erreportairik hoberenari emango zaiona: 400.000 pta.
 - «Herrietako aldizkariak» atala, herrietako aldizkariaren batetan argitaratutako artikulurik hoberenari emango zaiona: 200.000 pta.
- Sariei buruz Epaimahaiak hartutako erabakia 1992ko uztailaren 11-n emango da ezagutzera, egun berean egingo delarik sari banaketa ere. Epaimahaiak lanen maila egokia ez eritiz gero hutsik utzi ahal izango du saria. Apelaezina izango da Epaimahaiaren erabakia.